

Euskal AEko industria-jarduera % 0,5 gehitu zen 2024ko ekainean


Lehen seihilekoan, industria-produkzioa % 0,2 jaitsi da

Eustaten datuen arabera, eta lan-egutegi homogeenari dagokionez, Euskal AEko industria-produkzioa aurreko urteko hil berean izandakoa baino % 0,5 handiagoa izan da 2024ko ekainean.

2024ko maiatzaren aldean, Euskal AEko industria-jarduera % 1,0 gehitu da azken hilabeteen, urtaroen eragina zuzenduta.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizearen urte- arteko aldakuntza-tasa (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera, *Ekipo-ondasunak* –bertan sartzen dira ibilgailu motordunen fabrikazioa, tren-makinen eta tren-materialen eraikuntza eta aeronautika- edo ontzigintza-eraikuntza– % 2,5 gehitu dira aurreko urteko ekainarekin alderatuta.

Bitarteko ondasunen ekoizpenak (metalurgia eta produktu metalikoen fabrikazioa, industria kimikoa eta kautxu eta plastikozko produktuen fabrikazioa barne) % 0,2 egin du gora.

Kontsumo-ondasunen ekoizpenak, aldiz, urte arteko joera negatiboa izan du 2024ko ekainean, produkzioa % 2,0 jaitsi baita sektore osoan. Jaitsiera hori *Kontsumo-ondasun iraunkorren* eta *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* portaerari zor zaio, % 4,9 eta % 1,4 jaitsi baitira, hurrenez hurren. *Kontsumo-ondasun iraunkorren* artean sartzen da altzariak eta etxeko tresnak egitea, besteak beste. *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* artean daude, bestalde, elikagaiak prozesatzeko eta kontserbatzeko jarduerak, garbiketarako eta higienarako produktuen fabrikazioa, farmazia-produktuak eta jantziak egitea.

Azkenik, *Energiaren* produkzioa ere jaitsi egin da 2024ko ekainean, % 4,6 aurreko urteko hil beraren aldean. Sektore honetan sartzen dira energia elektrikoaren ekoizpena eta hornidura eta petrolioaren finketa.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea lurralde historikoaren eta ondasunen helburu ekonomikoaren arabera. Aldakuntza-tasak (p). Ekaina 2024

	Egutegi eraginak zuzendutako datuak		Datu desestacionalizatuak
	m / m-12	Am / A(m-12)	m / m-1
INDIZE OROKORRA			
Euskal AE	0,5	-0,2	1,0
Araba/Alava	0,5	-2,3	3,1
Bizkaia	-1,2	-1,3	1,8
Gipuzkoa	2,2	2,0	-0,9
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK			
Kontsumo-ondasunak	-2,0	-2,0	1,7
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-4,9	-7,3	0,0
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-1,4	-0,8	2,1
Ekipo-ondasunak	2,5	3,3	0,6
Bitarteko ondasunak	0,2	-1,7	1,8
Energia	-4,6	1,2	-2,0

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Am / A(m-12) Urte arteko aldakuntza-tasa, urtariletik behatutako azken hileraren arteko metatutako aldiaren (Am), aurreko urtean pilatutako aldi beraren (A(m-12)) aldean

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

Data 2024ko Abuztuaren 2a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Maila bereiziagoan, Euskal AEko industriako pisurik handieneko sektoreen artean, 2024ko ekainean produkzioaren igoerarik handiena izan zutenak, urte arteko terminoetan, *Zura, papera eta arte grafikoak* (% 7,4) eta *Makineria eta ekipoa* (% 4,9) izan ziren. Urte arteko jaitsierarik handienak, berriz, *Elikagaien, edarien eta tabakoaren industriak* (% 4,6) eta *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 4,5) arloek izan dituzte.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea. Sektore A38 nagusiak (1). Urte arteko hazkunde-tasa (p). Ekaina 2024

	m / m-12
Elkadura ind., edariak, tabakoa	-4,6
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	7,4
Kaubua eta plastikoak	-0,5
Metalurgia eta produktu metalikoak	1,1
Materiala eta tresna elektrikoak	-0,6
Makineria eta tresneria	4,9
Garraio-materiala	-1,8
Energia elektriko, gasa eta lurruna	-4,5

(p)Behinbehineko datuak

Egutegi eraginak zuzendutako datuak

(1)Euskal Aeko industrian pisurik handiena duten sektoreak

Data 2024ko Abuztuaren 2a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2024ko ekainean Industria-Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaera positiboa izan da Gipuzkoan eta Araban, produkzioa % 2,2 eta % 0,5 igo baita, hurrenez hurren. Bizkaian, aldiz, industria-produkzioa % 1,2 jaitsi da.

2024ko EKAINEKO BALANTZE METATUA

Urteko lehenengo sei hilabeteetako metatua, Industria-Produkzioaren Indizea % 0,2 jaitsi da. Ekainera arte metatutako produkzioa % 2,0 jaitsi da *Kontsumo-ondasunetan* eta % 1,7 *Bitarteko ondasunetan*. *Ekipo-ondasunek*, aldiz, bilakaera positiboa metatu dute, produkzioa % 3,3 igo baita aurreko urteko aldi beraren aldean. *Energian*, bestalde, ekainera arte metatutako produkzioa % 1,2 igo da.

Lurralde historikoka, 2024ko lehen sei hilabeteetako metatua balantze negatiboarekin itxi da Araban eta Bizkaian, produkzioa % 2,3 eta % 1,3 jaitsi baita, hurrenez hurren. Gipuzkoan, aldiz, produkzioa % 2,0 igo da, aurreko urteko aldi beraren aldean.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Horiei esker, hilabete honetako indizea lagingaren % **90,33**ko estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62